



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/03/31

Aldundiak aurreikusten dauenez, Bilboko Euskal Museoaren klaustroaren estalkia abenduan egongo da eginda

Lorea Bilbao Euskera eta Kulturako foru diputatua Batzar Nagusien aurrean egon da gaur, Bizkaiko hainbat museoren kudeaketeagaz erlazionautako zenbait gairen inguruko azalpenak emoteko. Bizkaiko Batzar Nagusietako Euskera eta Kulturako batzordeak oposizinoaren hainbat ekimen landu ditu gaur goizean, Aldundiko arduradunak, Euskal Museoaren klaustroa estaltzeko proiektuaren, Guggenheim Museora XX. urteurrena dala eta Aldundiak martxan jarriko dituan ekintzen, Arte Eder Museoaren bardintasun planaren, eta Itxaso Erroteta andrea, Bilboko Itsas Museoaren Erakunde Harremanetako arduraduna, kargutik oraintsu kendu izanaren inguruko informazioa emon daian.

Lehenengo gaiari jagokonez, Bilbaok iragarri dauenez daborduko jarri da martxan Bilboko Euskal Museoa estaltzeko proiektua. Aldundiak dituan aurreikuspenen barruan, diputatuaren berbetan “475.379,17 euroko kostua izango dauen” sabaia instalauko da klaustroaren gainean. Aurreikuspenak beteten badira, beharrak “abenduren 11rako” bukatuta egongo dira, hiru hilebeteko muntaketa lanen ostean.

Bilbaok azkenengo proiektua egiteko prozesu osoaren datak emon ditu. Bide horretan ideen lehiaketea be egongo da. Diputatu andreak azaldu dauenez, Museoak Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren aholkularitza izango dau, “maiatzaren 23an” proposamen hoberena aukeratzeko. Garagarrilean–garagarrilaren 7an–, idea irabazlea jasoko dauen eraikuntza proiektua onetsi eta, seguruenez, “abuztuaren 7an” lizitauko da.

Talde guztien eretziz, EH Bildurentzat izan ezik, “positiboa” da euskal museoaren klaustroa estaltzeko idea. Urte luzez Mikeldiko idoloak atsedean hartu dauen lekua izan da. Diputatuaren berbetan, proiektu horrek barrutiaren “erabilerak zabaltzeko” aukerea emongo dau. “Gune barrizaillea” bilakatzea gura da, museoako bertako eta kultura arloko bestelako jarduerak kontzentretako. Euskal kulturarako “sarrerako atea” izango da Bizkaiko gizarte osoarentzat.

EH Bilduk, bere aldetik, barriri adierazo dau ez dagola ados klaustroa estaltzeko ideagaz, hori egin ezkeru eraikinak “galdu egingo leukulako eregiteko orduan izan eban esanahia”, adierazo dau Meritxell Elgezabalek, eta “babestutako” ondare moltsoa dala gogorarazo dau.

Lorea Bilbaok azaldu dauenez, obrea “ez da inbasiboa izango”, eta dagozan elementuak “errespetau” egingo dira. “Egon zaitezte trankil. Klaustroaren alderdi hori ez da aldatuko”, erantzun deutso koalizino abertzaleari. Bilbaok esan dauenez, Euskal Museoaren proiektua bere egunean Deustuko Unibersidadeko klaustrorako egin zanaren antzekoa izango da.

BARDINTASUN PLANA ARTE EDER MUSEOAN

Beste alde batetik, Podemos Bizkaiari erantzunez, denpora gitxi barru Bilboko Arte Eder Museoaren bardintasun plana onetsiko dala iragarri dau Euskera eta Kulturako diputatuak. Talde moreak plan horren atzerapenarengaitik galdetu dau, Eusko Jaurlaritzaren 2013ko VI.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Berdintasun Planean adierazoten zanez “beharrezkoa” zalako, finantzaketa publikoa jasoten dauen erakundea da eta.

Bilbaok jakinarazo dauenez, Arte Eder Museoak “abenduaren 16an” hasi eban egoerearen aurretiazko diseinua, horren ostean bardintasun planaren diseinua egiteko. Museoaren zuzendaritza barriak “datozan asteetan” onartuko dau plan hori, eta gero Emakundera bideratuko da, harek on ikusia emon deion.

Planaren atzerapena justifiketako orduan, “ez egoala museoaren aurrekontuetan aurreikusita” esan dau diputatu andreak. Gainera, Bilbaok azaldu dauenez, bardintasunaren inguruko barruko baldintzak “behar ziran moduan justifikauta egozan”, bai kontratazino politikari jagokonez, bai laneko kontziliazinoari, beharginen ordainketei eta komunikazino politikari jagokonez be.

Diputatu andreak emon dituan datuek erakusten dabenez, museoan 48 pertsonak egiten dabe behar, eta horreetatik 23 emakumezkoak dira. Departamentu buruetako erdia –bost– emakumeak dira, eta zuzendariordeen artean emakume bi eta gizon bakarra dagoz. Gainera, koordinazinoagaz arduratzen diran pertsona biak be emakumeak dira, eta emondako zortzi beken hartzaileak emakumeak izan ziran.

GUGGENHEIM MUSEOA ETA “EKHUM HORMA” PROIEKTUA

Beste alde batetik, diputatu andreak, Talde Mistoaren erantzun-eskeei erantzunez, Bilboko Guggenheim Museoaren XX. urteurrena dala eta egingo diran ekimenen aztarna batzuk erakutsi ditu. Barrikuntzen artean, Bilbaok adierazo dau 35 urtetik beherako euskal artista gazteak aukeratuko dirala euren artelanak museoan erakusteko, Eginberri ekimenaren bitartez. Diputatuak, museoa nazinoarte mailan sustatzeko baliagarria izango dan “puntako” ikuskizun baten ikus-entzuneko ekoizpena be azpimarratu dau. Ikuskizun hori, oraindino baieztatu barik dagon datan gozau ahal izango dabe herritarrek.

Bukatzeko, Bilboko Itsas Museoaren Erakunde Harremanetako arduraduna, Itxaso Erroteta, kargutik “kentzeko” zergaitien inguruan galdetu dauen EH Bilduri erantzunez, diputatuak adierazo dau behargin horrek “berak eskatuta” itzi dauela postua, eszedentzia prozesuan oinarrituta, Udal batean behar egiteko. Bere egitekoak, ekitaldiak antolatzea, besteak beste, “gainerako beharginen artean” banatu dira. Momentuz, museoak ez dauka hutsik geratu dan lanpostua beteteko asmorik, Plan Estrategikoa amaitu arte.

Gainera, batzordeak Talde Mistoaren arauz besteko proposamen bat be eztabaidatu dau. Bertan eskaria egiten zan Bizkaiko Batzarrek euren “interesa eta laguntzea” erakutsi deien La Salveko Zubiko zutabean, Bilboko itsasadarraren eskumaldean dagonean, EKHUM hormea izeneko Proiektua martxan jarteko. Kultureagaz erlasionautako idea hori orain “26 urtetik” dabil administrazino publikoen artean, eta igazko urriaren 28an arduradun batek Batzar Nagusien aurrean aurkeztu eban, Eskaeretarako eta Herritarrazko Hartu-emonetarako Batzordean. Ekimena ez da onartu, EAJ-PNV eta PSE-EE kontra agertu diralako. Gainerako taldeak –EH Bildu, Podemos Bizkaia eta PP– Talde Mistoaren proposamenaren alde agertu dira.

Proposamena aurkeztu dauen Arturo Aldecoaren eretxiz, “gizartetik sortu dan ekimen positiboari laguntza morala” emotea izango litzateke. Ildo berean, EH Bilduk be EKHUM hormea idea ona dala esan dau, “balio interesgarriak defendiduten ditualako”. “Ez da gauza konplexua eta adminsitrazinoko izapide guztiak bete ditu”, esan dau Meritxell Elgezabalek.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Proposamenaren alde agertu dan arren, martxan jartearen inguruko erabagia Bilboko Udalari jagokola adierazo dau Podemos Bizkaiak. Sustatzaileek aurreikusi dabenez, “4 urtetan banatutako 2,3 milioiko” gastua izango dau, eta hasierako inbertsinoa “550.000 eurokoa” izango da. “Diru asko” da, esan dau Elsa Pamparacuatrok.

Foru Gobernua eusten daben Batzarretako taldeek (EAJ-PNV eta PSE-EE) adierazo dabenez, proiektu horren inguruko azken berbea Bilboko Udalak dauka, eta behin baino gehiagotan agertu da idearen kontra, azkenengoz joan dan urtarrilean egin zan osoko bilkuran. PSE-EEk esan dauenez, artelana jarrea planteetan dan lekuan badago beste bat 2013tik. “Behar bada beste leku batean jarrea planteau beharko litzateke”, esan dau Juan Otermin sozialistak.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
31/03/2017

La Diputación estima que el cierre del claustro del Museo Vasco de Bilbao estará ejecutado en diciembre

La diputada foral de Euskera y Cultura, Lorea Bilbao, ha comparecido hoy en Juntas Generales en relación a asuntos relacionados con la gestión de varios museos de Bizkaia. La comisión de Euskera y Cultura de la Cámara vizcaína sustanciaba esta mañana varias iniciativas de la oposición para que la responsable foral ofreciera información de la instalación de una cubierta en el claustro del Museo Vasco, de las acciones del Guggenheim en su XX aniversario, del plan de igualdad en el Bellas Artes, y del “cese” de la responsable de Relaciones Institucionales del museo Marítimo de Bilbao, Itxaso Erroteta.

En relación al primer asunto, Bilbao ha anunciado el pistoletazo de salida de un proyecto de cubierta para el Museo Vasco de Bilbao. Las estimaciones que maneja la Diputación incluyen la instalación de un techo sobre el claustro que tendrá un “coste final de 475.379,17 euros”, según ha informado la diputada, una obra que espera esté terminada “el 11 diciembre”, tras tres meses de montaje.

Bilbao ha dado fechas de todo el proceso de elaboración del proyecto final en el que por el camino habrá un concurso de ideas. El museo, según ha explicado la diputada, contará con el asesoramiento del Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro para elegir la mejor propuesta “el 23 de mayo”. Ya en julio –el 7 de julio- se aprobará y licitará el proyecto constructivo con la idea ganadora, que será adjudicada, previsiblemente, el “7 de agosto”.

Todos los grupos junteros, a excepción de EH Bildu, han considerado “positiva” la idea de cubrir el claustro del museo vasco lugar que durante muchos años ha sido el lugar de descanso del ídolo de Mikeldi. Para la diputada el proyecto permitirá “incrementar los usos” de un recinto que espera se convierta en un “espacio innovador”, en donde se concentren actividades del propio museo y del ámbito de la cultura. Será la “puerta de entrada” a la cultura vasca para toda la sociedad vizcaína.

Por su parte, EH Bildu ha expresado nuevamente su rechazo a la idea de cubrir el claustro porque produce que el edificio “pierda el sentido para el que fue construido”, ha señalado Meritxell Elgezabal, quien ha recordado su carácter de conjunto patrimonial “protegido”.

Lorea Bilbao ha apuntado que la obra “no será invasiva”, ya que se “respetarán” los elementos existentes. “Estén tranquilos. El aspecto del claustro no se va a modificar”, ha respondido a la coalición abertzale. Bilbao ha comparado el proyecto del Euskal Museoa con el ejecutado en su día para el claustro de la Universidad de Deusto.

PLAN DE IGUALDAD EN EL BELLAS ARTES

Por otro lado, en respuesta a Podemos Bizkaia, la diputada de Euskera y Cultura ha anunciado la próxima aprobación del primer plan de Igualdad del Museo de Bellas Artes de Bilbao. El grupo morado ha preguntado por el retraso de este plan que, según uno de los artículos del VI Plan de



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Igualdad del Gobierno Vasco de 2013, era una “obligación” al ser entidades que reciben financiación pública.

Bilbao ha informado de que el museo de Bellas Artes inició “el 16 de diciembre” el diagnóstico previo de situación para posteriormente hacer el diseño del plan de igualdad. La nueva dirección del museo aprobará “en las próximas semanas” dicho plan para que sea elevado luego a Emakunde para su visto bueno.

La diputada ha justificado el retraso en su elaboración porque “no estaba contemplado en los presupuestos” de la pinacoteca. Además, Bilbao ha explicado que las condiciones internas en torno a la igualdad “estaban suficientemente justificadas”, tanto en lo concerniente a la política de contratación, como a la conciliación laboral, las retribuciones del personal y la política de comunicación.

Según los datos aportados por la diputada, en el museo trabajan 48 personas de las cuales 23 son mujeres. La mitad de las jefes de departamentos –cinco- son mujeres y existen 2 subdirectoras frente a un subdirector. Además, las dos personas que realizan labores de coordinación son mujeres y las últimas ocho becas otorgadas fueron a parar a alguna mujer.

MUSEO GUGGENHEIM Y PROYECTO “MURO EKHUM”

Por otro lado, la diputada, a preguntas del grupo Mixto, ha mostrado algunas pinceladas de lo que serán las iniciativas conmemorativas del XX aniversario del Museo Guggenheim de Bilbao. Entre las novedades, Bilbao se ha referido a la próxima elección de los jóvenes artistas vascos menores de 35 años que expondrán en el museo a través de la iniciativa Eginberri. La diputada ha destacado también la producción audiovisual de un espectáculo “puntero” que servirá para promover el museo a nivel internacional, el cual podrá ser disfrutado por la ciudadanía en una fecha aún por confirmar.

Finalmente, en contestación a EH Bildu que preguntaba por los motivos del “cese” de la responsable de Relaciones Institucionales del Museo Marítimo de Bilbao, Itxaso Erroteta, la diputada ha informado que dicha trabajadora ha dejado su puesto “a petición propia” acogiéndose a un proceso de excedencia para trabajar en un ayuntamiento. Sus funciones, entre las que se encontraba la de organizar eventos, se han repartido “entre el resto de trabajadores”. De momento, en el museo no se plantea cubrir la plaza vacante hasta que no culmine el Plan Estratégico.

Asimismo la comisión ha debatido una proposición no de norma del grupo Mixto en la que se pedía a la Cámara vizcaína que manifestara “su interés y apoyo” a la puesta en marcha del Proyecto Muro EKHUM en el pilar del Puente de La Salve ubicado en la orilla derecha de la ría de Bilbao, una idea cultural que ronda las distintas administraciones públicas desde hace “26 años” y que fue presentada en las Juntas Generales el 28 de octubre del pasado año por uno de sus responsables, en la comisión de Peticiones y Relaciones con la Ciudadanía. La iniciativa ha sido rechazada por la mayoría parlamentaria de PNV y PSE-EE. El resto de grupos -EH Bildu, Podemos Bizkaia y PP- ha apoyado la proposición del Mixto.

Para el proponente, Arturo Aldecoa, hubiera supuesto “un apoyo moral” a una iniciativa “positiva que parte de la sociedad”. En la misma línea, EH Bildu ha defendido la bondad del



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

muro EKHUM “porque defiende unos valores interesantes”. “No supone una complejidad y ha cumplido todos los trámites administrativos”, ha dicho Meritxell Elgezabal.

Pese a apoyarla, Podemos Bizkaia ha explicado que la decisión sobre su puesta en marcha corresponde al ayuntamiento de Bilbao. Sus promotores estiman un gasto de “2,3 millones repartidos en 4 años” con una inversión inicial de “550.000 euros”, lo que representa “mucho dinero”, a juicio de Elsa Pamparacuatro.

Los grupos junteros que apoyan al Gobierno foral (PNV y PSE-EE) se han referido a que la última palabra sobre el proyecto la tiene que dar el ayuntamiento de Bilbao, el cual ya ha mostrado su negativa en varias ocasiones, la última en el pleno del pasado mes de enero. El PSE-EE ha recordado que en el sitio que se plantea ubicar la obra existe otra desde el año 2013. “Igual debería plantearse en otro lugar”, ha dicho el socialista Juan Otermin.